
LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO DE
RELACIONES
LABORALES



EUSKADIKO EGOERA SOZIOLABORALA

2023KO EMAITZEN AURRERAPENA


I. NEGOZIO KOLEKTIBOA, LANEKO GATAZKAK ETA ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK	3
I.1. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN DINAMIKA 2023AN	3
I.2. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN DINAMIKA, LURRALDE EREMUEK ARABERA	6
I.3. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN DINAMIKA, EREMU FUNTZIONALEK ARABERA	12
I.4. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EMAITZAK 2023AN	13
I.5. HITZARMEN KOLEKTIBOEN INAPLIKAZIOAK EAE-N	17
I.6. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EGOERA 2024AREN HASIERAN	18
I.7. GREBAK	21
I.8. PREGORI AURKEZTUTAKO GATAZKAK	22
I.9. ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK	23
II. ENPLEGUAREN ETA KONTRATAZIOAREN BILAKAERA	24
II.1. JAKINARAZITAKO KONTRATAZIOAREN BILAKAERA	24
II.2. GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA	27
II.3. ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA ETA LANGABEZIA TASA	31
III. ONDORIOAK	33

I. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOEA, LANEKO GATAZKAK ETA ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK

I.1. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN DINAMIKA 2023AN

a) 2023ko emaitza globala


2023a amaitzean, langileen % 63,8k eguneratuta zituzten haien hitzarmenak (indarraldi betean), % 30,6k luzapen egoeran zituzten, eta % 5,6k bakarrik zituzten hitzarmenak indargabetuta eta estaldurarik gabe. 2012ko lan-erreforma onartu zenetik izandako daturik onenak dira, bai hitzarmenak indarrean dituzten langileen ehunekoari dagokionez, bai hitzarmenak indargabetuta dituzten pertsonen ehunekoari dagokionez.



Urtearen hasieran, hitzarmenak berrituta zituzten pertsonen ehunekoa aurreko urtekoaren antzekoa zen, baina urtearen amaieran hitzarmenak indarrean zituzten langileen ehunekoak % 60 gainditzea ahalbidetu zuten 2023an zehar lortutako akordioek.

Gainera, Gipuzkoako Ostalaritzako Hitzarmena eta Bizkaiko Merkataritza Orokorreko Hitzarmena sinatu zituzten, indargabetuta baitzeuden. Horri esker, hitzarmenak indargabetuta zituzten langileen ehunekoa % 5,6ra jaitsi zen ekitaldiaren amaieran (34.424 pertsona).

Sexuaren araberako banaketari dagokionez, aurreko urtearekin alderatuta hazi egin ziren hitzarmenak indarrean zituzten gizonen ehunekoa (2022an % 49,5 eta 2023an % 68,1) eta hitzarmenak eguneratuta zituzten emakumeen ehunekoa (2022an % 40 eta 2023an % 58,2).



b) Hasierako egoera

2023aren hasieran, langileen % 27k zituzten hitzarmenak eguneratuta. 2022an (% 26,5) eta 2021ean (% 27,2) erregistratutako ehunekoen oso antzekoa da hori.

2023an zehar 351 hitzarmen erregistratu ziren. Hala, 220.582 pertsonaren lan-baldintzak berritu ziren; kopuru hori aurreko urtekoaren ia bikoitza zen. EAEn 251 hitzarmen (21 sektorekoak eta 230 enpresakoak) erregistratu ziren, 148.468 pertsonari estaldura eman zietenak. Estatuan, berriz, EAEn eragina zuten 100 hitzarmen erregistratu zituzten (35 sektorekoak eta 65 enpresakoak), 72.114 langileri eragin zietenak.

1. taulan 2023an zehar erregistratutako hitzarmen kolektiboen kopurua adierazten da, baita horien eraginpeko pertsona-kopurua ere.

1. TAULA.
2023. URTEAN ERREGISTRATUTAKO HITZARMEN KOLEKTIBOAK, EAE-N ERAGINA DUTENAK

	ENPRESA		SEKTOREA		GUZTIRA	
	HITZARMEN KOP.	LANGILE KOP.	HITZARMEN KOP.	LANGILE KOP.	HITZARMEN KOP.	LANGILE KOP.
GUZTIRA (1+2)	295	41.536	56	179.046	351	220.582
1.- EAEn erregistratutakoak	230	29.758	21	118.710	251	148.468
Araba	55	5.827	3	2.862	58	8.689
Bizkaia	91	11.356	6	53.959	97	65.315
Gipuzkoa	80	12.051	9	57.988	89	70.039
Lurralde artekoak	4	524	3	3.901	7	4.425
2.- Estatu-mailakoak	65	11.778	35	60.336	100	72.114

c) Negoziazio kolektiboaren egoera orokorra EAEn 2023aren amaieran

Laburtzeko, negoziazio kolektiboak 2023ko abenduaren 31n zuen egoera ageri da 2. taulan. Hitzarmen kopurua eta eraginpeko langile-kopurua adierazten dira, lurralde-eremuaren arabera, eta hitzarmenaren egoeraren arabera sailkatuta (indarrean, luzatuta edo indargabetuta).

2. TAULA.
HITZARMEN KOLEKTIBOAK ETA ERAGINPEKO LANGILEAK 2023KO ABENDUAREN 31N, EGOERAREN ARABERA

	INDARREAN		LUZATUTA		INDARGABETUTA*		GUZTIRA	
	HITZARM. KOP.	LANGILE KOP.	HITZARM. M. KOP.	LANGILE KOP.	HITZARM. M. KOP.	LANGILE KOP.	HITZARM. M. KOP.	LANGILE KOP.
GUZTIRA (1+2)	743	388.641	652	186.612	27	34.424	1.422	609.677
1. EAEn erregistratutakoak	527	252.855	515	152.097	22	33.592	1.064	438.544
Araba	121	38.737	80	17.722	5	5.689	206	62.148
Bizkaia	215	111.555	255	68.430	9	14.197	479	194.182
Gipuzkoa	172	90.511	154	33.504	8	13.706	334	137.721
Lurralde artekoak	19	12.052	26	32.441	0	0	45	44.493
2.- Estatu-mailakoak	216	135.786	137	34.515	5	832	358	171.133

*Hitzarmenak indargabetuta dituzten eta babesten dituen goragoko beste hitzarmenik ez duten langileak.

2023an, hitzarmena berri zuten langileen ehunekoa % 36,8koa izan zen, aurreko urtekoaren bikoitza. Aipatu dugun moduan, ekitaldiaren amaieran langileen

% 63,8k eguneratuta zituzten lan-baldintzak. 2012ko lan-erreforma onartu zenetik izandako daturik onena da.

Hitzarmena indargabetuta duten pertsonen dagokienez (% 5,6), 2012ko lan-erreforma indarrean sartu zenetik izandako baxuena da hitzarmenak indargabetuta eta estaldurarik gabe dituzten pertsonen ehunekoa. Izan ere, 2020an jaisten hasi zen kopurua, 2022an Arabako Industria Siderometalurgikoaren Hitzarmena sinatu zuten eta 2023an Gipuzkoako Ostalaritzako Hitzarmena eta Bizkaiko Merkataritza Orokorreko Hitzarmena sinatu zituzten.

I.2. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN DINAMIKA, LURRALDE EREMUEAN ARABERA

2023aren amaieran, negoziazio kolektiboko hitzarmenen eraginpeko langile guztien artean, % 71,9 (438.544 pertsona) EAEn negoziatutako hitzarmenen eraginpean zeuden, eta % 28,1 (171.133 pertsona) estatu-mailan negoziatutako hitzarmenen eraginpean.


EAEn negoziatutako hitzarmenek eta EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenek urtearen hasieran eta amaieran zuten egoera ikusi daiteke 3. eta 4. grafikoetan.

Negoiazio kolektiboak hazkunde handiagoa izan du estatu-mailan. Bertan, urtearen hasieran, handiagoa zen hitzarmenak berrituta zituzten pertsonen ehunekoa.


2023an zehar, estatu-mailako langileen % 44,8k berritu zituzten hitzarmenak. EAEn negoziatutako hitzarmenen eraginpeko langileei dagokienez, ordea, % 33,6k bakarrik berritu zituzten akordioak.

Horren guztiaren ondorioz, ekitaldiaren amaieran hitzarmenak eguneratuta zituzten pertsonen ehunekoa askoz altuagoa zen Estatuan (% 79,3) EAEn baino (% 57,6).

3. GRAFIKOA.
URTEAREN HASIERAN HITZARMENA INDARREAN, LUZATUTA EDO
INDARGABETUTA ZUTEN LANGILEAK, EREMUAREN ARABERA (2023KO
URTARRILAREN 1EAN)



4. GRAFIKOA.
EKITALDIAREN AMAIERAN HITZARMENA INDARREAN, LUZATUTA EDO
INDARGABETUTA ZUTEN LANGILEAK, EREMUAREN ARABERA (2023KO
ABENDUAREN 31N)



Negoziazio kolektiboak lurralde bakoitzean izandako bilakaerari dagokionez, Araban, ekitaldiaren amaieran, langileen % 62,3k indarrean zuten hitzarmen kolektiboa. Ehuneko hori askoz ere altuagoa da 2022ko abenduan erregistratutakoa baino (% 54,7). Lurralde-eremu horretan hiru sektore-hitzarmen

erregistratu ziren, 2.862 langileri estaldura ematen dietenak, eta 55 enpresa-hitzarmen, 5.800 langileri baino zerbait gehiagori estaldura ematen dietenak.

Bizkaiari dagokionez, urtearen amaieran langileen % 57,5ek eguneratuta zituzten hitzarmenak, hau da, aurreko urtean (% 33,6) baino askoz ere gehiagok. 2023an lurralde eremu horretan 91 enpresa-hitzarmen erregistratu zituzten, 11.356 pertsona babesten dituztenak, eta 6 sektore-hitzarmen, ia 54.000 pertsona babesten dituztenak.






Bestetik, 2023aren hasieran Gipuzkoako lurralde historikoak zuen hitzarmenak eguneratuta zituzten langileen ehuneko txikiena (% 14,1). Urtearen amaieran, ordea, soldatapeko langileen % 65,7k indarrean zituzten hitzarmenak (2022an % 45,2). Hala, lurralde horretan izan zen hazkunderik handiena; 80 enpresa-hitzarmen erregistratu ziren, 12.000 pertsonari baino gehiagori estaldura eman zietenak, eta 9 sektore-hitzarmen, ia 58.000 babestu zituztenak.

Lurralde arteko negoziazioari dagokionez, urtearen hasieran oso baxua zen hitzarmenak eguneratuta zituzten langileen ehunekoa (% 17,4), eta ekitaldiaren amaieran % 27,1ek bakarrik zituzten hitzarmenak indarrean (2022an % 24,1ek).

EAEko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeetako Hitzarmen Kolektiboaren ohiko indarraldia 2021ean amaitu zen eta gaur egun luzatuta dago. Horrek eragin handia izan zuen aipatutako estaldura-maila baxuan. Dena den, aipatu beharrekoa da eremu honetan inork ere ez duela hitzarmena indargabetuta.

EAEen eragina duten estatu-mailako hitzarmenei dagokienez, aurreko urtean bezala, ekitaldiaren amaieran erregistratu zen hitzarmenak eguneratuta zituzten pertsonen ehunekorik altuena (% 79,3), 2022an (% 60,9) eta 2021ean (% 55,5) eskuratutako ehunekoa baino altuagoa. Aldiz, hitzarmenak indargabetuta zituzten langileen ehunekoa % 0,5ekoa baino ez da.

5. GRAFIKOA.
NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA 2023AN, EAE-KO
LURRALDE EREMUEK ARABERA




2023ko urtarrilaren 1eko datuak

2023ko abenduaren 31ko datuak

- Hitzarmenak indargabetuta dituzten eta babesten dituen goragoko beste hitzarmenik ez duten langileen ehunekoa
- Hitzarmenak 2023an luzatuta eta berritzeko zain dituzten langileen ehunekoa
- Hitzarmenak indarrean dituzten langileen ehunekoa

d) Ohar garrantzitsu batzuk

2020an hasitako gure negoziazio eremu propioen sendotze-prozesua baieztatu egin da. 2023an, EAEn negoziatutako hitzarmenen (indarrean eta luzatuta) eraginpeko langile kopurua 13.000 langile baino gehiago areagotu zen aurreko urtetik, eta 404.952 pertsonara heldu zen. EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenen eraginpeko langileen kopurua, berriz, 1.000 pertsona baino apur bat gehiago hazi zen eta 170.301 pertsonara heldu zen ekitaldiaren amaieran.



Era berean, hitzarmenak indargabetuta dituzten pertsonen kopuruak ere behera egiten jarraitzen du, 2020an hasitako joerari jarraituz. Hala, lan-erreforma indarrean sartu zenetik izandako zifrarik baxuena eskuratu du.

Dena den, nabarmentzekoa da 34.000 pertsonak baino gehiagok oraindik ere hitzarmena berreskuratu gabe jarraitzen dutela, eta ez dutela babesten dituen goragoko beste hitzarmenik. Kasu askotan, egoerak urte dezente daramatza aldatu gabe; kasu batzuetan, 2013az geroztik. Indargabetutako hitzarmenen artean, honako hauek nabarmendu behar dira, duten garrantziagatik: Bizkaian, Bulegoetako Hitzarmena; eta, Gipuzkoan, Bulegoetako Hitzarmena eta Merkantzien Errepide Bidezko Garraioarena.

2023an lortutako akordio nagusiak

EAEn negoziatutako 21 sektore-hitzarmen erregistratu ziren 2023an. 21 hitzarmen horiek babesten dituzten langileen kopurua (118.710 pertsona) 2,3 aldiz handiagoa da 2022an lortutako sektore-hitzarmenek babesten dituzten langileen kopurua baino (51.488 pertsona).

Eraginpeko langile-kopurua kontuan hartuta, Ardoaren Industria eta Merkataritzako Hitzarmena eta Ehunen Merkataritzako Hitzarmena nabarmendu behar dira Araban; bien artean ia 23.000 langile batzen dituzte.

Bizkaian, Industria Siderometalurgikoaren Hitzarmena aipatu behar da. 37.000 langileri baino gehiagori eragiten die. 2021eko abenduaren 31n amaitu zen haren ohiko indarraldia, eta 2023an berri zuten.



Gipuzkoako lurralde historikoari dagokionez, Industria Siderometalurgikoaren Hitzarmenean (ia 30.000 langileri eragiten die) eta Ostalaritzako Hitzarmenean (11.000 langileri eragiten die eta indargabetuta zegoen) lortutako akordioak azpimarratu behar dira.

EAEn eragina duten estatu-mailako sektore-hitzarmenekin lotuta, Zaintza eta Segurtasun Pribatuko Hitzarmena nabarmendu daiteke, 6.500 langileri eragiten diena, eta Ingeniarien Hitzarmena, 21.519 pertsonari eragiten diena.

I.3. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN DINAMIKA, EREMU FUNTZIONALEN ARABERA

Lehenik eta behin, aipatu beharra dago 2023aren amaieran langileen % 74,6 (454.736 pertsona) sektoreko negoziazioaren mende zeudela haien lan-baldintzak zehazteko, hitzarmenak indargabetuta zituzten langileak barne hartuta. Gainerako % 25,4ek (154.941), berriz, enpresa-mailan negoziatzen zituen hitzarmenak. 2022an, ehunekoa % 75,5ekoa zen sektoreko akordioen kasuan, eta % 24,5ekoa enpresa-mailako hitzarmenen kasuan.

7. GRAFIKOA.
NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA 2022AN, EREMU FUNTZIONALEN ARABERA



2023ko urtarrilaren 1eko datuak

2023ko abenduaren 31ko datuak

- Hitzarmenak indargabetuta dituzten eta babesten dituen goragoko beste hitzarmenik ez duten langileen ehunekoa
- Hitzarmenak 2023an luzatuta eta berritzeko zain dituzten langileen ehunekoa
- Hitzarmenak indarrean (eguneratuta) dituzten langileen ehunekoa

Negoiazio kolektiboak izandako bilakaera eremu funtzionalaren (enpresa/ sektorea) arabera aztertuz gero, ikus daiteke enpresa-hitzarmenek babestutako langileen % 35ek eta sektore-hitzarmenek babestutako langileen % 24,4k hitzarmenak eguneratuta zituztela 2023aren hasieran. 2023aren amaieran, ehuneko hori % 60,3koa zen enpresa-hitzarmenen kasuan, eta % 65ekoa sektore-hitzarmenek babestutako langileen kasuan.

Horrek esan nahi du enpresa-hitzarmenen kasuan 6,5 puntuko hazkundera izan zela, 2022aren amaierako egoerarekin alderatuta; izan ere, 2022aren amaieran, hitzarmenak indarrean zituzten langileen ehunekoa % 53,8koa zen. Sektore-hitzarmenen kasuan, berriz, aurreko urtearekiko aldea oso handia izan zen: 22,4 puntuko hazkundera (2022aren amaieran % 42,6koa zen ehunekoa).

Hitzarmenak indargabetuta dituzten pertsona ia guztiak sektore-hitzarmenen eremukoak dira. Hala ere, aipatu dugun moduan, horien kopurua murriztu egin zen aurreko urtetik. 2022an, sektore-hitzarmenen eraginpeko langileen % 9,5k indargabetuta zituzten hitzarmenak; 2023an, berriz, ehuneko hori % 7,5era jaitسي zen.

Enpresa-hitzarmenen eremu funtzionalaren barruan, hitzarmenak indargabetuta dituzten pertsonen ehunekoa baxua da. Izan ere, kasu gehienetan, enpresa-hitzarmena indargabetuta duten pertsonak babesa ematen dieten sektore-hitzarmenak dituzte (lurralde- edo estatu-mailakoak).

I.4. NEGOIAZIO KOLEKTIBOAREN EMAITZAK 2023AN

a) Soldata-igoerak

3. TAULA.
2023RAKO ETA 2024RAKO ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK
(AURREKO URTEAREKIKO %)

	SOLDATA IGOERA	
	2022	2023
EAE, GUZTIRA	4,08	4,22
- EAEn negoziatutakoak	4,80	4,59
Araba	4,78	2,96
Bizkaia	4,29	4,48
Gipuzkoa	5,76	5,62
Lurralde artekoak	2,39	3,03
- Estatu-mailakoak*	2,89	3,51


* EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenetako soldata-igoerak.

EAEn 2023an indarrean zeuden hitzarmenetan adostutako batez besteko soldata-igoera % 4,22koa izan zen, Estatuko hitzarmen kolektiboetan adostutako batez besteko soldata-igoera (% 3,46¹) baino 0,76 puntu handiagoa.

EAEn negoziatutako hitzarmenetan adostutako soldata-igoera % 4,59koa izan zen. EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenetan, berriz, % 3,51koa.

Igoerarik handienak Gipuzkoan (% 5,62) eta Bizkaian (% 4,48) adostu ziren. Araban (% 2,96) eta EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenetan (% 3,51), berriz, igoera txikiagoa izan zen.

Eremu funtzionalen arabera, aurreko urtean ez bezala, soldata-igoerak handiagoak izan ziren sektore-hitzarmenetan (% 4,25), enpresa-hitzarmenetan (% 4,14) baino.




Azkenik, 2023an zehar erregistratutako hitzarmenetako batez besteko soldata-igoera % 4,66koa izan zen.

Soldata-igoeren bilakaera baloratzeko, 10. grafikoan EAEn azken urteetan abenduan izandako urte arteko inflazioa ageri da, baita KPIaren urteko batez besteko igoera ere. Aurreko urtean ez bezala, 2023an, hitzarmenetan adostutako batez besteko igoera handiagoa izan zen 2023ko abenduko urte arteko inflazioa baino (% 3,1 EAEn eta Estatuan) eta urte osoan erregistratutako batez besteko inflazioa baino (% 3,6 EAEn eta % 3,5 Estatuan).


¹ Estatu osorako hitzartutako soldata-igoera, Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioak 2024ko urtarrilaren 31n emandako informazioaren arabera.

9. GRAFIKOA.
EAE-KO HITZARMENETAN ADOSTUTAKO BATEZ BESTEKO SOLDATA-IGOERAK.



Iturria: LHK eta Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa

10. GRAFIKOA.
EAE. KPI-AREN URTE ARTEKO IGOERAK ABENDUAN ETA KPI-AREN BATEZ BESTEKO IGOERA URTE BAKOITZEAN



Halaber, enpresa batzuen kasuan ez dugu ezagutzen aplikatu beharreko igoera, etekinen, salmenten eta abarren arabera delako. Hortaz, horiek ezin ditugu kontuan hartu soldata-igoera kalkulatzeko.

b) Lanaldia

Indarrean zeuden eta baldintzak eguneratuta zituzten hitzarmenetan, 2023rako adostutako batez besteko lanaldia 1.698 ordukoa izan zen EAE osorako. EAEn negoziatutako hitzarmenetan (1.684) eta EAEn eragina duten Estatuko hitzarmenetan (1.727) adostutako lanaldien arteko aldea 43 ordukoa izan zen. 2022an aldea 24 ordukoa zen. 2021ean, berriz, EAEn eragin zuten estatu-mailako hitzarmenetan adostutako lanaldia 40 ordu handiagoa izan zen negoziazio propioan adostutako lanaldia baino.

4. TAULA.
INDARREAN DAUDEN HITZARMENAK. 2023RAKO ADOSTUTAKO BATEZ
BESTEKO LANALDIA

	EAEn negoziatutakoak (1)	Estatu- mailakoak, EAEn eragina dutenak (2)	EAEn aplikagarriak (3)	ESTATUKO hitzarmen guztien batezbestekoa (4)
Lanaldia	1.684	1.727	1.698	1.749

(1) EAEn negoziatutako hitzarmenak, indarrean daudenak.

(2) EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenak, indarrean daudenak.

(3) EAEn negoziatutako hitzarmenak eta EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenak, indarrean daudenak.

(4) Estatuan indarrean dauden hitzarmen guztien batezbestekoa

Iturria: Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa eta LHK

EAEn negoziatuak diren eta indarrean dauden hitzarmenen artean, 2023an aurreko urteko lanaldia murriztu zuten hitzarmenen proportzioa 2022koa baino apur bat txikiagoa izan zen. Hala, 2023an hitzarmenen % 9,6k murriztu zuten lanaldia. 2022an, berriz, % 10,1ek eta 2021ean % 10,3k.

Lanaldiaren murrizketaren batez besteko zenbatekoa (-0,65) aurreko urtean erregistratutakoa baino txikiagoa izan zen; izan ere, 2022an murrizketa 0,75 ordukoa izan zen. EAEn negoziatutako hitzarmenen kasuan, 2021ean murrizketa 0,62 urtean ordukoa izan zen, eta 2020an urtean 0,80 ordukoa.

2023rako adostutako batez besteko lanaldiak ikusi daitezke 4. taulan. EAEn negoziatutako hitzarmenak eta EAEn aplikatzen diren hitzarmen guztiak bereizten ditu, baita Estatuko hitzarmen guztien batezbestekoa ere.

Orokorrean, EAEn aplikagarriak diren hitzarmenetan adosten diren lanaldiek txikiagoak izaten jarraitzen dute Estatuan adosten direnak baino (1.698 ordu eta 1.749 ordu).


EAEn negoziatutako hitzarmenak bakarrik aintzat hartuz gero (EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenak alde batera utzita), batez besteko jardunaldia are laburragoa da, 1.684 ordukoa.

I.5. HITZARMEN KOLEKTIBOEN INAPLIKAZIOAK EAE-N

2023an zehar, 12 inaplikazio gordailutu ziren EAEn, eta horiek 178 pertsonari eragin zieten. Hortaz, aurreko urtearekin alderatuta, inaplikazio-kopurua % 45,5 murriztu zen (2022an 22), eta eraginpeko pertsonen kopurua % 47,3 (2022an 338).

Aipatu beharrekoa da oso txikia izaten jarraitzen duela gordailututako inaplikazioen eta eraginpeko pertsonen kopuruak, 2023aren amaieran hitzarmenak indarrean (indarraldi betean eta aurreraeraginean) zituzten langileen kopurua 575.000 pertsonatik gorakoa zela kontuan hartuta.

Aurreko urteetan bezala, inaplikazio gehienetan kontsulta epean lortu zen alderdien arteko akordioa; zehazki, 12 inaplikazioetatik 11tan. Kasu batean hitzarmenaren batzorde paritarioan eskuratu zen akordioa.




Halaber, aurreko sei urteetan bezala, 2023an ere ez zioten inaplikazio-eskaerarik aurkeztu ORPRICCEri, Estatutuaren arabera Hitzarmen Kolektiboak ez Aplikatzeko Prozedurak Ebazteko Organoari.

I.6. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EGOERA 2024AREN HASIERAN

12. GRAFIKOA.

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EGOERA 2024AREN HASIERAN



- 2024an hitzarmenak indargabetuta dituzten eta babesten dituen goragoko beste hitzarmenik ez duten langileen ehunekoa
- 2024an hitzarmenak luzatuta eta berritzeko zain dituzten langileen ehunekoa
- Indarrean dauden hitzarmenen eraginpeko langileen ehunekoa 2024an

a) Hasierako egoera

2024ko urtarrilaren 1ean, luzatuta eta berritzeko zain edo indargabetuta zeuden 865 hitzarmen, hau da, guztizkoaren % 63,1. Horiek langileen % 47,7ri eragiten diete (307.941 pertsona).

Aurreko urtearekin alderatuta, 2023an zehar eragile sozialek lortutako akordioen ondorioz, hitzarmenak luzatuta edo indargabetuta zituzten langileen ehunekoa asko jaitsi zela ikusi daiteke. Izan ere, 2023aren hasieran egoera horretan zeuden hitzarmenen % 73, eta langileen % 73,5i eragiten zieten.

EAEn garatzen den negoziazioari dagokionez, 2024aren hasieran 227.512 langilek zuten haien hitzarmena luzatuta edo indargabetuta (eremu horretako langileen % 49,6k). Aldiz, estatu mailako hitzarmenen eraginpeko pertsonen % 42,7 zegoen hitzarmena berritzeko zain edo hitzarmena indargabetuta (80.429 pertsona).

2024an 505 hitzarmen daude indarrean (hainbat urtetarako indarraldia), eta horiek 338.502 pertsonari eragiten diete. 2023aren hasieran 390 hitzarmen baino ez zeuden indarrean, eta 162.909 pertsonari eragiten zieten, guztizkoaren % 27ari.

Aurreko urtearekin alderatuta, urtearen hasieran hitzarmenak berrituta dituzten langileen ehunekoa asko igo da Gipuzkoan (2023an % 14,1 eta 2024an % 60,9) eta Bizkaian (2023an % 24,2 eta 2024an % 53,7), Industria Siderometalurgikoko Hitzarmenak sinatu baitituzte bi lurralde horietan. Lurralde arteko eremuan, berriz, aurkako fenomenoak ikusten da, akordio gehienak luzapen-egoeran baitaude.

Eremu funtzionalen arabera, aurreko urtean ez bezala, negoziazioa aurreratuago dago sektore-hitzarmenen eremuan, enpresa-hitzarmenen eremuan baino. 2024aren hasieran, sektore-hitzarmenen eraginpeko pertsonen % 55,8k eguneratuta zituzten hitzarmenak. Enpresa-hitzarmenen kasuan, berriz, eraginpeko langileen % 41,3k baino ez zituzten hitzarmenak negoziatuta 2024aren hasieran.

b) Soldata-igoerak

2024ko urtarrilaren 1ean indarrean dauden eta baldintzak eguneratuta dituzten hitzarmenetako batez besteko soldata-igoera % 3,07koa da. EAEn negoziatutako hitzarmenen kasuan apur bat altuagoa da, % 3,14koa; eta EAEn eragina duten estatu mailako hitzarmenetan, baxuagoa, % 2,86koa.

2024ko urtarrilaren 1ean indarrean dauden eta baldintzak eguneratuta dituzten hitzarmenetan jasotako soldata-igoeretan oinarrituta kalkulatu ditugu ehuneko horiek. Hortaz, indarrean dauden (indarraldi betean) 505 hitzarmenak bakarrik hartu ditugu kontuan kalkulua egiteko; horiek 338.502 langileri eragiten diete (guztizkoaren % 52,3ari). Izan ere, gainerako langileek (% 47,7) luzatuta edo indargabetuta dituzte hitzarmenak.

Azkenik, Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioak argitaratutako datuen arabera, Estatuan indarrean dauden hitzarmenetako (ondorio ekonomiko ezagunak dituztenak eta urtarrilaren 31n erregistratuta daudenak) batez besteko igoera % 2,83koa da.

5. TAULA.
2024KO URTARRILAREN 1EAN INDARREAN DAUDEN HITZARMENETAN
2024RAKO ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

	Enpresa	Sektorea	GUZTIRA
EAE, GUZTIRA	2,93	3,09	3,07
- EAEn negoziatutakoak	3,03	3,16	3,14
Araba	2,42	2,46	2,45
Bizkaia	3,43	2,96	3,02
Gipuzkoa	3,25	3,59	3,56
Lurralde artekoak	2,09	--	2,09
- Estatu-mailakoak*	2,63	2,90	2,86


* EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenetako soldata-igoerak.

**LANEKO GATAZKAK ETA ENPLEGUA ERREGULATZEKO
ESPEDIENTEAK**

I.7. GREBAK

Lan eta Enplegu Sailak argitaratutako informazioaren arabera, 2023ko urtarriletik urrira 273 greba erregistratu ziren Euskadin. Horietan 54.475 pertsonak parte hartu zuten eta lan egin gabeko 142.631 lanaldi eragin zituzten. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, zifrak % 3,9, % 20,2 eta % 37,3 jaitsi ziren, hurrenez hurren.

2022ko partaideen eta lan egin gabeko lanaldien igoera, zati batean, Bizkaiko Industria Siderometalurgikoaren Hitzarmenaren negoziazioan izandako arazoen eragin zuten. Horrek azaltzen ditu urte hartako igoera handiak, partzialki bada ere.



Negoiazio kolektiboko prozesuetan izandako arazoen eragin zituzten ia greba guztiak. Hain zuzen ere, gatazka-mota horiek izan ziren lan egin gabeko lanaldien % 93,7ren erantzuleak.

Gatazka motaren arabera, 10 hilabete horietan zehar 229 enpresako greba eta 44 sektoreko greba zenbatu ziren. Horietan 11.661 eta 42.814 pertsonak parte hartu zuten, hurrenez hurren. Enpresako greben kasuan, lan egin gabeko lanaldiak 59.184 izan ziren eta, sektoreko gatazken kasuan, 83.447.

I.8. PRECORI AURKEZTUTAKO GATAZKAK


Lan Harremanen Kontseiluak Preco akordioa (Lan Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei buruzko Lanbide Arteko Akordioa) kudeatzen du haren hiru lurralde-zerbitzuen bidez. 2000ko otsailaren 16an (66 zenbakidun EHAA, 2000ko apirilaren 4koa) sinatu zuten Preco akordioa Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari handiena duten konfederazio sindikal eta enpresarial guztiek.

2023an zehar 645 eskaera aurkeztu zizkioten Precori, eta horiek 143.382 pertsonari eragin zieten. Hortaz, aurreko urtearekin alderatuta, % 22,9 hazi zen aurkeztutako eskaera-kopurua eta % 34,6 eraginpeko pertsonen kopurua.

2020an eta 2021ean asko hazi zen gatazka kopurua, pandemiaren ondorio ekonomikoei eta sanitarioei aurre egiteko onartutako berariazko araudia aplikatzeko orduan sortutako desadostasunen ondorioz. Eta 2023an berriro hazi zen gatazken eta eraginpeko pertsonen kopurua, 2018an, 2019an eta 2022an erregistratutako balioetatik gora.

Aurreko urtean bezala, adostasun batera heltzeko bilera gehienak aurrez aurrekoak izan ziren, baina bilera telematikoak eta mistoak ere egin zituzten, plataforma telematikoak erabilia. 2020an hasi ziren plataforma telematikoak erabiltzen, ezarritako mugikortasun eta edukiera mugei aurre egiteko.

14. GRAFIKOA.
PRECORI AURKEZTUTAKO GATAZKA KOPURUA ETA ERAGINPEKO
LANGILEEN KOPURUA




Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

2023an zehar amaitutako gatazka guztiei dagokienez (660 prozedura), adostasunen ehunekoa % 24,7koa izan zen (163 prozedura). 2022an % 26,8koa izan zen eta, 2021ean, % 21,7koa.

1.9. ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK

2023an zehar enplegua erregulatzeko 276 espediente aurkeztu zituzten EAEn, eta horiek 7.404 langileri eragin zieten. Hortaz, aurreko urtearekin alderatuta, % 51,2 murriztu zen espediente-kopurua eta % 62,6 eraginpeko pertsonen kopurua.

Arrazoi ekonomikoengatik aurkeztutako espedienteek 6.712 pertsonari eragin zieten, guztizkoaren % 90,6ri; arrazoi teknikoan, antolaketakoan edo ekoizpenekoan ondorioz aurkeztutakoek 478 pertsonari eragin zieten (guztizkoaren % 6,5); eta ezinbesteko arrazoiengatik aurkeztutako espedienteek 214 pertsonari bakarrik eragin zieten (guztizkoaren % 2,9).



Gehienei (% 88,8) aldi baterako enplegua erregulatzeko espedienteek (ABEEEak) eragin zieten, eta % 11,2ri (828 pertsona) lan-harremana iraungitzeko espedienteek eragin zieten.

EEE-en eraginpeko guztizko pertsona kopurura murriztu egin zen, baina lan-harremana iraungitzeko espedienteen eraginpeko langile-kopurua % 89,5 hazi zen 2022arekiko; izan ere, urte hartan 437 pertsonari bakarrik eragin zien espediente-mota horrek.

Azkenik, aipatu beharrekoa da pandemiak eragindako jardueraren murrizketa handiaren ondorioz, 2020an modu esponontzialean hazi zela enplegua erregulatzeko espedienteen eraginpeko langileen kopurua, eta 210.019 pertsonara iritsi zela. Ezinbesteko arrazoiengatik espedienteak ziren gehienak. Normaltasunera itzultzean, eraginpekoen kopurua bat-batean jaitsi da eta, gaur egun, 2015-2016 urteetako mailatik gertu gaude.

II. ENPLEGUAREN ETA KONTRATAZIOAREN BILAKAERA

Aurreko edizioetan bezala, lehendabizi, sinatutako kontratu kopuruaren bilakaera aztertuko dugu. Ondoren, 2023ko abenduko Gizarte Segurantzako afiliazioa, erregistratutako langabezia eta langabezia-tasa aztertuko ditugu.

II.1. JAKINARAZITAKO KONTRATAZIOAREN BILAKAERA

Jakinarazitako kontratazioaren datuak aztertzen hasi aurretik, aipatu beharrekoa da lan-erreformarako, enplegu-egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko presazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretuak arau berriak ezarri zituela aldi baterako kontrataziorako, eta mugatu egin zuela. Ondorioz, 2022an zehar nabarmen murriztu zen aldi baterako kontratazioa, eta asko hazi zen kontratu finkoen kopurua, batez ere, aldizkako kontratu finkoena.

Hain zuzen ere, 2022aren aurreko urteetan, EAEn sinatzen ziren kontratuen % 90 aldi baterakoak ziren (2019an, % 91,7); 2022an, berriz, % 75,5era jaitsi zen ehuneko hori. Bestalde, 2019. urtean sinatutako kontratu guztien artetik, % 8,3 ziren mugagabeak; 2022an, guztizkoaren % 24,5 izan ziren mota horretakoak.

Banaketa hori ia aldaketarik gabe mantendu zen 2023an. Urte horretan 730.146 kontratu sinatu ziren; horietatik % 25,5 (186.492) mugagabeak izan ziren, eta gainerako % 74,5ak (543.654) aldi baterakoak.

2022arekin alderatuta, jakinarazitako kontratu guztien kopurua % 10,5 jaitsi zen; aldi baterako kontratuak % 11,7 murriztu ziren eta, mugagabeak, % 6,8. Urte arteko jaitsiera txikiena izan zuen kontratu-mota aldizkako finkoa izan zen, % 1 bakarrik murriztu baitzen.

Hala ere, jakinarazitako kontratu-kopurua murriztu bazen ere, EAEn 2023ko abenduan Gizarte Segurantzaren afiliatuta zeuden langileen kopurua milioi batetik gorakoa izan zen, azken urteetako zifrarik altuena.

6. TAULA.
EAE-N JAKINARAZITAKO KONTRATU KOPURUA, KONTRATU
MOTAREN ARABERA

	2022	2023	Aldakuntza 2023/2022
Mugagabeak	199.995	186.492	-% 6,8
Aldizkako finkoak	36.748	36.376	-% 1,0
Gainerako mugagabeak	163.247	150.116	-% 8,0
Aldi baterakoak	615.724	543.654	-% 11,7
Praktikak eta formakuntzakoak	7.102	6.296	-% 11,3
Gainerako aldi baterakoak	608.622	537.358	-% 11,7
GUZTIRA	815.719	730.146	-% 10,5

Iturria: SEPE.

Sexuaren arabera, 2022arekin alderatuta, jakinarazitako kontratu-kopurua apur bat gehiago jaitsi zen gizonen kasuan (-% 11,9), emakumeen kasuan baino (-% 9,1). Hala ere, kontratu mugagabeen murrizketa (aldizkako finkoak alde batera utzita) handiagoa izan zen emakumeen kasuan (-% 11,0), gizonen kasuan baino (-% 5,1).

7. TAULA.
EAE-N JAKINARAZITAKO KONTRATU KOPURUA, KONTRATU
MOTAREN ETA SEXUAREN ARABERA

	2022	2023	Aldakuntza 2023/2022
Mugagabeak	102.698	98.254	-% 4,3
Aldizkako finkoak	19.613	19.444	-% 0,9
Gainerako mugagabeak	83.085	78.810	-% 5,1
Aldi baterakoak	303.696	259.613	-% 14,5
Praktikak eta formakuntzakoak	4.546	3.959	-% 12,9
Gainerako aldi baterakoak	299.150	255.654	-% 14,5
GIZONAK, GUZTIRA	406.394	357.867	-% 11,9
Mugagabeak	97.297	88.238	-% 9,3
Aldizkako finkoak	17.135	16.932	-% 1,2
Gainerako mugagabeak	80.162	71.306	-% 11,0
Aldi baterakoak	312.028	284.041	-% 9,0
Praktikak eta formakuntzakoak	2.556	2.337	-% 8,6
Gainerako aldi baterakoak	309.472	281.704	-% 9,0
EMAKUMEAK, GUZTIRA	409.325	372.279	-% 9,1
GUZTIRA	815.719	730.146	-% 10,5

Iturria: SEPE.

Aldi baterako kontratuak haien iraupenaren arabera aztertuz gero, ikus dezakegu iraupen laburrekoak (7 egun edo gutxiago) eta zehaztu gabeko iraupena² zutenak izan zirela gehienak 2023an ere: urte horretan formalizatutako kontratu guztien % 60,1. Ehuneko horrek ez zuen ia aldaketarik izan 2022tik.


8. TAULA.
EAE. ALDI BATERAKO KONTRATUAK, IRAUPENAREN ARABERA

	7 EGUN EDO GUTXIAGO	8 EGUN ETA 1 HILABETE ARTEAN	1 ETA 3 HILABETE ARTEAN	3 ETA 6 HILABETE ARTEAN	6 HILABETE ETA 1 URTE ARTEAN	1 URTE BAINO GEHIAGO	ZEHAZTU GABEA	GUZTIRA
2022	233.704	113.461	69.129	42.810	13.184	4.147	139.289	615.724
2023	229.992	103.759	65.162	32.742	11.906	3.543	96.550	543.654
Banaketa 2022	% 38,0	% 18,4	% 11,2	% 7,0	% 2,1	% 0,7	% 22,6	% 100,0
Banaketa 2023	% 42,3	% 19,1	% 12,0	% 6,0	% 2,2	% 0,7	% 17,8	% 100,0

Iturria: SEPE.

Sinatutako guztizko kontratu kopurua jaitsi izanari esker eta aldi baterako kontratazioaren jaitziera handiari esker, txandakatzeak (pertsone bakoitzak urtean sinatutako kontratu kopurua) behera egin du berriro, eta 2,51n kokatu da; azken urteetako baliorik baxuena da.

17. GRAFIKOA.
TXANDAKATZEAREN BILAKAERA EAE-N




Jarraian, Gizarte Segurantzako afiliazioaren bilakaera aztertuko dugu, kontratu motaren arabera. Jakinarazitako kontratazioan izandako aldaketek enpleguari nola eragin dioten hobeto ulertzen lagunduko digu horrek.

² 2021eko lan-erreformaz geroztik, obra edo zerbitzuko kontratuak desagertu zirenez, zehaztu gabeko iraupena duten kontratuak ordezkapen-kontratueta (amaierarik zehaztuta ez dutenak) mugatuko lirake, funtsean.

II.2. GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Aipatu dugun moduan, 2023ko abenduan milioi bat baino apur bat gehiago ziren EAEn Gizarte Segurantzaren afiliatutako langileak (1.012.947 pertsona); azken urteetako zifrarik altuena da.



Erregimen Orokorrean afiliatutako langile-kopurua hazi egin zen; 20.620 pertsona gehiago izan ziren, eta horrek eragin zuen afiliazioaren urte arteko hazkundea, 18.870 pertsonakoa (+% 1,9). Izan ere, Erregimen Orokorreko hazkundeak konpentsatu egin zuen Langile Autonomoen Erregimen Berezian izandako jaitsiera, 1.735 pertsonakoa.

Gainerako erregimenetan, aldakuntza absolutuak oso txikiak izan ziren, eta eragin txikia izan zuten afiliatuen kopuru totalan. Zehazki, Etxeko Langileen Sistema Berezian inskribatutako langile-kopurua apur bat baino ez zen hazi: 2022an 28.081 pertsona zeuden afiliatuta, eta 2023ko abenduan 28.152.

9. TAULA.
AFILIATUTAKO LANGILE-KOPURUAREN BANAKETA, ERREGIMENAREN ARABERA (HILABETEKO BATEZBESTEKOA)

	AUTONOMOEN ERREGIMEN BEREZIA		ITSASOKO LANGILEEN ERREGIMEN BEREZIA (Besteren kontura)		ITSASOKO LANGILEEN ERREGIMEN BEREZIA (Norbere kontura)		NEKAZARITZAKO LANGILEEN SISTEMA BEREZIA		ERREGIMEN OROKORRA (ETXEKO LANGILEENTZAKO ERREGIMEN BEREZIA)		ERREGIMEN OROKORRA (NEKAZARITZAKO LANGILEEN SISTEMA BEREZIA)		ERREGIMEN OROKORRA		SISTEMA GUZTIRA
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	
Abe. 2022	101.610	63.617	2.724	284	203	85	2.331	1.436	1.107	26.973	1.700	285	405.602	386.117	
	Guztira		165.228	3.008		288		3.768		28.081		1.985		791.719	994.077
Abe. 2023	100.204	63.287	2.793	316	176	71	2.263	1.394	1.124	27.028	1.672	277	414.989	397.351	
	Guztira		163.493	3.109		247		3.658		28.152		1.949		812.339	1.012.947
Aldakuntza 2023-2022		-1.735		101		-41		-110		71		-36		20.620	18.870
Aldakuntza % (2023/2022)		-% 1,1		% 3,4		-% 14,2		-% 2,9		% 0,3		-% 1,8		% 2,6	% 1,9

Aipatu beharrekoa da 2022 eta 2023 arteko afiliazioaren hazkundearen zatirik handiena sektore pribatuan gertatu zela. Langile publikoen kopurua hazi egin zen; 5.961 pertsona gehiago izan ziren, eta hazkunde erlatibo handia izan zuen (+% 3,9). Sektore pribatuko langile kopurua, ordea, bikoitza baino gehiago hazi zen: 12.909 langile (+% 1,5).

10. TAULA.
GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO LANGILEAK. SEKTORE
PUBLIKOA/PRIBATUA (HILABETEKO BATEZBESTEKOA)

	2022	2023	Aldea 2023-2022	Aldakuntza 2023/2022
Estatukoa	7.541	7.877	336	% 4,5
Erkidegokoa	106.313	110.878	4.565	% 4,3
Tokikoa	39.442	40.501	1.059	% 2,7
Sektore publikoa, guztira	153.295	159.256	5.961	% 3,9
Sektore pribatua, guztira	840.782	853.691	12.909	% 1,5
Sistema, guztira	994.077	1.012.947	18.870	% 1,9

Halaber, atzerritarrek (gizonek zein emakumeek) afiliazioaren hazkundeari egindako ekarpen handia aipatu behar da. 2022ko abendutik 2023ko abendura afiliatu-kopurua hazi egin zen: 18.870 pertsona gehiagokoa izan zen, eta horietatik % 44,6 (8.412 pertsona) atzerritarrak ziren.

11. TAULA.
GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO LANGILE ATZERRITARREN
KOPURUA (HILABETEKO BATEZBESTEKOA)

	2022	2023	Aldea 2023-2022	Aldakuntza 2023/2022
Gizonak	45.480	50.216	4.736	% 10,4
Emakumeak	37.742	41.420	3.678	% 9,7
Guztira	83.223	91.635	8.412	% 10,1

Erregimen Orokorreko afiliazioaren bilakaera

12. TAULA.
ERREGIMEN OROKORREAN AFILIATUTAKO LANGILE KOPURUAREN
BANAKETA, KONTRATU MOTAREN ARABERA (HILABETEKO
BATEZBESTEKOA)


	Mugagabea - Lanaldi osoa	Mugagabea - Lanaldi partziala	Aldizkako finkoak	Aldi baterakoa - Lanaldi osoa	Aldi baterakoa - Lanaldi partziala	Beste batzuk (*)	GUZTIRA
2022ko abe.	437.092	98.709	27.201	100.633	45.852	82.233	791.719
2023ko abe.	455.278	103.910	28.975	98.706	43.282	82.188	812.339
Aldeak							
2023-2022	18.186	5.201	1.774	-1.927	-2.570	-45	20.620
Aldakuntza % 2023/2022	% 4,2	% 5,3	% 6,5	-% 1,9	-% 5,6	-% 0,1	% 2,6

(*) Barne hartzen ditu kontraturik ez duten afiliatuak (funtzionarioak), zainzaile ez-profesionalak, enpresetako formakuntza-programak eta lanekoak ez diren praktikak (1493/2011 eta 1543/2011 Errege Dekretuak) eta akats edo ahazte baten ondorioz fitxategian kontratu-mota agertzen ez zaien horiek. Erregimen Orokorreko afiliatuak bakarrik hartzen ditu barne; kanpoan uzten ditu nekazaritzako eta etxeko langileen sistema bereziak.

Aipatu dugun moduan, EAEn Erregimen Orokorrean afiliatutako pertsona-kopurua hazi egin zen: 20.620 pertsona (+% 2,6) gehiago izan ziren 2022ko abenduaren eta 2023ko abenduaren artean.


Lanaldi osoko kontratu mugagabea zuten afiliatu-kopuruaren hazkundeak (+18.186 pertsona) eragin zuen gorakada hori. Aldiz, aldi baterako kontratuak zituzten afiliatuen kopurua murriztu egin zen: 4.497 pertsona gutxiago izan ziren. Lanaldi partzialeko kontratu mugagabea zuten afiliatuen kopurua jaitsi egin zen (5.201 pertsona gutxiago), eta aldizkako finkoen kopurua ere jaitsi egin zen (1.774 pertsona gutxiago).

19. GRAFIKOA.
ERREGIMEN OROKORREAN AFILIATUTAKO LANGILE KOPURUAREN
ALDAKUNTZA, 2023KO ABENDUAREN ETA 2022KO ABENDUAREN
ARTEKOA, KONTRATU MOTAREN ARABERA (HILABETEKO BATEZBESTEKOA)



Beste batzuk³ ataleko afiliatuak (gehienak funtzionarioak) alde batera uzten baditugu, eta lan-kontratua duten afiliatuak bi talde handitan banatzen baditugu (kontratu mugagabea dutenak eta aldi baterako kontratua dutenak), honakoa ondorioztatu dezakegu: 2023ko abenduan, afiliatuen % 76,6k kontratu mugagabea zuten; 2022an (% 75,5) baino 1,1 puntu gehiago eta 2019an (% 66,8) baino ia 10 puntu gehiago.

20. GRAFIKOA.
ERREGIMEN OROKORREAN AFILIATUTA DAUDEN ETA LAN-KONTRATUA
DUTEN LANGILEEN BANAKETA, KONTRATU MOTAREN ARABERA
(HILABETEKO BATEZBESTEKOA)



Aldizkako kontratu finkoa duten pertsonen partaidetzak txikia izaten jarraitzen badu ere, apur bat handitu da horien pisua; 2022an lan-kontratua zuten afiliatu guztien % 3,8 ziren (Beste batzuk³ kanpoan utzita), eta orain % 4 dira.

Azkenik, sektorekako banaketari dagokionez, 2022ko abenduaren eta 2023ko abenduaren artean zerbitzuen sektorean hazi zen gehien afiliazioa: % 3 (+17.697 pertsona).

³“Beste batzuk” atalak barne hartzen ditu kontraturik ez duten afiliatuak (funtzionarioak), zaintzaile ez-profesionalak, enpresetako formakuntza-programak eta lanekoak ez diren praktikak (1493/2011 eta 1543/2011 Errege Dekretuak) eta akats edo ahazte baten ondorioz fitxategian kontratu-mota agertzen ez zaien horiek. Erregimen Orokorreko afiliatuak bakarrik hartzen ditu barne; kanpoan uzten ditu nekazaritzako eta etxeko langileen sistema bereziak.

13. TAULA.
ERREGIMEN OROKORREAN AFILIATUTAKO LANGILE KOPURUAREN
BANAKETA, SEKTOREAREN ARABERA (HILABETEKO BATEZBESTEKOA)

	Afiliatutako langileak		Aldea 2023-2022	% Aldakuntza 2023/2022
	2022	2023		
Nekazaritza	1.209	1.284	75	% 6,2
Eraikuntza	36.580	37.251	671	% 1,8
Industria	156.251	158.427	2.176	% 1,4
Zerbitzuak	597.680	615.377	17.697	% 3,0
Guztira	791.719	812.339	20.620	% 2,6


Funtsean, 2023aren amaieran, Gizarte Segurantzaren afiliatutako langileen kopuruak gehieneko historikoa eskuratu zuen, Erregimen Orokorrean kontratu mugagabearekin afiliatutako langileen hazkunde handiaren ondorioz.

II.3. ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA ETA LANGABEZIA TASA

Erregistratutako langabezia

2023ko abenduaren amaieran 107.779 pertsona zeuden erregistratuta Lanbiden langabezia-egoeran (erregistratutako langabezia)⁴. Hortaz, erregistratutako langabeziak urte arteko % 2,7ko jaitsiera izan zuen 2022ko abenduarekin alderatuta.

21. GRAFIKOA.
EAE. ENPLEGU-BULEGOETAN ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA
(HILEKO AZKEN EGUNA)



⁴Honakoa da erregistratutako langabezia: hilaren azken egunean alta-egoeran dauden lan-eskari guztiak, SEPEk erregistratutakoak, Erregistratutako Langabezia neurtzeko irizpide estatistikoak ezartzen dituen 1985eko martxoaren 11ko Ministro Aginduak (1985eko martxoaren 14ko BOE) deskribatzen dituen lan-egoerei dagozkienak kanpoan utzita.

Dena den, lan-eskatzailen, okupatuena edo langabezia-egoeran zeudenen kopurua (296.704 pertsona) % 6,6 hazi zen 2022ko abenduarekin alderatuta (278.339 pertsona). Talde hau askoz ere handiagoa da erregistratutako langabeziaren estatistikak kontuan hartzen dituen pertsonen taldea baino, eta barne hartzen ditu enplegu-eskatzaila okupatuak, prestasun mugatua dutenak eta 1985eko martxoaren 11ko Ministro Aginduak (1985eko martxoaren 14ko BOE) haren erregistratutako langabeziaren estatistikan txertatzen ez dituen beste kolektibo batzuk, hala nola ikasleak edota dirulaguntza jasotzen duten nekazaritzako aldi baterako langileak.


Langabezia-tasa

Eustatek lan-merkatuaren gainean egiten duen BJA (Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta) eragiketa estatistikoaren arabera, 2023ko IV. hiruhilekoko langabezia-tasa % 7koa zen, aurreko hiruhilekoan (% 7,5) baino 5 hamarren baxuagoa.

Aurreko urteetako aldi berarekin alderatuz gero, 2023ko IV. hiruhilekoko langabezia-tasa 2009ko IV. hiruhilekoan erregistratutakoa (% 8,7) baino baxuagoa dela ikus dezakegu. Hala ere, 2008ko IV. hiruhilekoko (% 4,6) baino handiagoa da oraindik.

Sexuaren arabera, gizonen langabezia-tasa % 7,1ekoa izan zen, eta emakumeena % 6,9koa.

22. GRAFIKOA.
EAE-KO LANGABEZIA-TASA, HIRUHILEKOAREN ARABERA (BJA)



III. ONDORIOAK

Negoiazio kolektiboa

2023a amaitzean, langileen % 63,8k eguneratuta zituzten haien hitzarmenak (indarraldi betean), % 30,6k luzapen egoeran zituzten, eta % 5,6k bakarrik zituzten hitzarmenak indargabetuta eta estaldurarik gabe. 2012ko lan-erreforma onartu zenetik izandako daturik onenak dira, bai hitzarmenak indarrean dituzten langileen ehunekoari dagokionez, bai hitzarmenak indargabetuta dituzten pertsonen ehunekoari dagokionez.

Urtearen hasieran, hitzarmenak berrituta zituzten pertsonen ehunekoa aurreko urtekoaren antzekoa zen, baina urtearen amaieran hitzarmenak indarrean zituzten langileen ehunekoak % 60 gainditzea ahalbidetu zuten 2023an zehar lortutako akordioek.

Gainera, Gipuzkoako Ostalaritzako Hitzarmena eta Bizkaiko Merkataritza Orokorreko Hitzarmena sinatu zituzten, indargabetuta baitzeuden. Horri esker, hitzarmenak indargabetuta zituzten langileen ehunekoa % 5,6ra jaitsi zen ekitaldiaren amaieran (34.424 pertsona).

2020an hasitako gure negoziazio eremu propioen sendotze-prozesua baieztatu egin da. 2023an, EAEn negoziatutako hitzarmenen (indarrean eta luzatuta) eraginpeko langile kopurua 13.000 langile baino gehiago areagotu zen aurreko urtetik, eta 404.952 pertsonara heldu zen. EAEn eragina duten estatu mailako hitzarmenen eraginpeko langileen kopurua, berriz, 1.000 pertsona baino apur bat gehiago hazi zen eta 170.301 pertsonara heldu zen ekitaldiaren amaieran.

Hitzarmen kolektiboen inaplikazioen eraginpeko pertsona kopuruak oso txikia izaten jarraitu zuen, eta kasu gehienetan kontsulta-epearen barruan iritsi ziren alderdiak akordio batera. Ondorioz, EAEn kasu bakar batean ere ez du esku hartu hiru alderdiko organoak (ORPRICCE).

Edukiak

EAEn 2023an indarrean zeuden hitzarmenetan adostutako batez besteko soldata-igoera % 4,22koa izan zen, Estatuko hitzarmen kolektiboetan adostutako batez besteko soldata-igoera (% 3,46⁵) baino 0,76 puntu handiagoa.

EAEn negoziatutako hitzarmenetan adostutako soldata-igoera % 4,59koa izan zen. EAEn eragina duten estatu mailako hitzarmenetan, berriz, % 3,51koa. Eremu funtzionalen arabera, soldata-igoerak handiagoak izan ziren sektore-hitzarmenetan (% 4,25), enpresa-hitzarmenetan (% 4,14) baino.

Indarrean zeuden eta baldintzak eguneratuta zituzten hitzarmenetan, 2023rako adostutako batez besteko lanaldia 1.698 ordukoa izan zen EAE osorako.

⁵ Estatu osorako hitzartutako soldata-igoera, Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioak 2024ko urtarrilaren 31n emandako informazioaren arabera.

Negoiazio kolektiboaren egoera 2024aren hasieran

Urtarrilaren 1ean, luzatuta eta berritzeko zain zeuden 840 hitzarmen, guztizkoaren % 63,1. Hortaz, langileen % 42,5ek (275.087 pertsona) luzapen-egoeran zituzten hitzarmenak 2024aren hasieran. 2023an ehuneko hori % 64,9koa zen eta, 2022aren hasieran, % 65,3koa.

2024ko urtarrilaren 1ean indarrean dauden eta baldintzak eguneratuta dituzten hitzarmenetako batez besteko soldata-igoera % 3,07koa da. EAEn negoziatutako hitzarmenen kasuan altuagoa da, % 3,14koa; eta EAEn eragina duten estatu mailako hitzarmenetan, baxuagoa, % 2,86koa.

Gatazkak eta Enplegua Erregulatzeko Espedienteak

2023ko urtarriletik urrira 273 greba erregistratu ziren EAEn. Horietan 54.475 pertsonak parte hartu zuten, eta lan egin gabeko 142.631 lanaldi eragin zituzten. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, zifrak % 3,9, % 20,2 eta % 37,3 jaitsi ziren, hurrenez hurren. 2022ko igoera, zati batean, Bizkaiko Industria Siderometalurgikoko Hitzarmenaren negoziazioan izandako arazoek eragin zuten. Horrek azaltzen ditu urte hartako igoera handiak, partzialki bada ere.

2023an zehar enplegua erregulatzeko 276 espediente aurkeztu zituzten EAEn, eta horiek 7.404 langileri eragin zieten. Hortaz, aurreko urtearekin alderatuta, % 51,2 murriztu zen espediente kopurua eta % 62,6 eraginpeko pertsonen kopurua.

Enplegua eta kontratazioa

2023an zehar 730.146 kontratu sinatu zituzten EAEn. Horietatik % 25,5 (186.492) mugagabeak izan ziren eta, gainerako % 74,5ak (543.654), aldi baterakoak.

2022arekin alderatuta, jakinarazitako kontratu guztien kopurua % 10,5 jaitsi zen; aldi baterako kontratuak % 11,7 murriztu ziren eta, mugagabeak, % 6,8. Urte arteko jaitsiera txikiena izan zuen kontratu mota aldizkako finkoa izan zen, % 1 bakarrik murriztu baitzen.

Txandakatzeak (pertsona bakoitzak urtean sinatutako kontratu kopurua) behera egin zuen berriro, eta 2,51n kokatu zen; azken urteetako baliorik baxuena da.

Gizarte Segurantzako afiliazioari dagokionez, 2023ko abenduan milioi bat baino apur bat gehiago ziren EAEn Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsonak (1.012.947 pertsona); azken urteetako zifrarik altuena da. Erregimen Orokorrean afiliatutako pertsona kopuruaren hazkundeak eragin zuen gorakada hori; izan ere, 2022ko abenduan baino 20.620 pertsona gehiago (+% 2,6) zeuden Erregimen Orokorrean afiliatuta.

Beste batzuk⁶ ataleko afiliatuak (gehienak funtzionarioak) alde batera uzten baditugu, eta lan-kontratua duten afiliatuak bi talde handitan banatzen baditugu (kontratu mugagabea dutenak eta aldi baterako kontratua dutenak), honakoa ondorioztatu dezakegu: 2023ko abenduan, afiliatuen % 76,6k kontratu mugagabea zuten; 2022an (% 75,5) baino 1,1 puntu gehiago eta 2019an baino ia 10 puntu gehiago.

Aldizkako kontratu finkoa duten pertsonen partaidetzak txikia izaten jarraitzen badu ere, apur bat handitu da horien pisua; 2022an lan-kontratua zuten afiliatu guztien % 3,8 ziren, eta orain % 4 (Beste batzuk kanpoan utzita).

BJAren (Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta) arabera, 2023ko IV. hiruhilekoko langabezia-tasa % 7koa izan zen

Aurreko urteetako aldi berarekin alderatuz gero, 2009ko IV. hiruhilekoan erregistratutakoa (% 8,7) baino baxuagoa dela ikus dezakegu. Hala ere, 2008ko IV. hiruhilekoko (% 4,6) baino handiagoa da oraindik.

⁶"Beste batzuk" atalak barne hartzen ditu kontraturik ez duten afiliatuak (funtzionarioak), zaintzaile ez-profesionalak, enpresetako formakuntza-programak eta lanekoak ez diren praktikak (1493/2011 eta 1543/2011 Errege Dekretuak) eta akats edo ahazte baten ondorioz fitxategian kontratu-mota agertzen ez zaien horiek. Erregimen Orokorreko afiliatuak bakarrik hartzen ditu barne; kanpoan uzten ditu nekazaritzako eta etxeko langileen sistema bereziak.